Firmante: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
Emisor: IZENPE
Fecha:24/05/2024 10:20:58

2024ZAUN0047

TEKNO-KLIK-EN KONTRATAZIOA: IKASTETXEETAN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (IKTAK) ERABILTZEKO PREBENTZIO JARDUERA
CONTRATACIÓN DE TEKNO-KLIK: ACTIVIDAD PREVENTIVA EN EL USO DE LAS TECNOLOGÍAS DE INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN (TICS) EN CENTROS ESCOLARES

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2024ZAUN0047

1. XEDEA

Kontratu honen xedea Tekno-Klik programari buruzko lanak gauzatzea da: informazio eta komunikazio teknologia berrien (IKT) erabilera arduratsu baterako formakuntza Irungo ikastetxeetan.

2.- HELBURUAK

Orokorra:
Teknologia berrien erabilera arduratsu batean trebatu eta hezitu, eta haien erabilerak ekarditzazkeen arriskuei aurre-hartu

Zehatzak:

- Babes faktoreak garatu eta arrisku faktoreak murriztu.
- Komunikazioa sustatu: beraien unibertso digitalera gerturapen minimo bat egin behar dugu helduok, arriskuak badira, guregana jo dezaten lortu nahi badugu. Ez dugu sarean adituak izan behar haien jokaera arriskutsuak kudeatzeko, nahikoa da gertu somatzen dituzten helduak izatea.
- Jokaera arriskutsuak detektatu eta bizi izan dituzten egoera desatseginei aurre egiteko bideak zabaldu: biolentzia edukiak, desegokia,jarrera erasotzaileak, ezezagunekinharremana…
- Ohiko arriskuak zeintzuk diren azaldu, eta haiek ekiditeko segurtasun eta pribatutasun baliabidez hornitu.
- Elkarbizitza digital osasuntsu baterako beharrezko diren arauen inguruan hausnartu, hasieratik har dezaten jokaera positibo eta errespetuzkoa.
- Pentsamendu kritiko bat garatzen lagundu.

3.- HARTZAILEAK

Hartzaileak, Irungo Bigarren Hezkuntzako 2. mailako eta Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasleak izango dira, bai eta hauen irakasle eta gurasoak.

1. OBJETO

El objeto del contrato es la ejecución de los trabajos relativos al Programa de Tekno-Klik: f ormación para un uso responsable de las nuevas tecnologías de información y comunicación (TICs) en los centros escolares de Irun.

2.- OBJETIVOS

General:
Educar en el uso adecuado, seguro y responsable de las nuevas tecnologías y prevenir los riesgos asociados a las mismas.

Específicos:

- Aumentar los factores de protección y disminuir los factores de riesgo.
- Fomentar la comunicación con menores, sobre el uso que hacen de las nuevas tecnologías, materiales que visualizan y juegos que eligen; para así habituarles a compartir su universo virtual con los mayores y evitar riesgos.
- Detectar conductas de riesgo y canalizar experiencias negativas que hayan podido experimentar con las tecnologías: contenido violento, inadecuado, actitudes agresivas, contactos con desconocidos…
- Nombrar riesgos habituales en el uso de nuevas tecnologías y aportarles estrategias básicas de seguridad y privacidad para evitarlas.
- Debatir las pautas de comunicación y convivencia digital, para fomentar una actitud positiva y respetuosa desde el comienzo, en este incipiente uso de las nuevas tecnologías.
- Fomentar el pensamiento crítico.

3.- PERSONAS DESTINATARIAS

La población destinataria será el alumnado de 6º Primaria y de 2º de Secundaria de los centros Irun, así como el profesoradoy padres y madres de dicho

4.- JARDUERAK

- Formakuntza tailerrak ikasleekin gauzatzea.
    - Ordu beteko iraupena duten bi saio, talde bakoitzeko.
    - Talde dinamikan aritzeko jarduerak.

- Irakasleekin prestakuntza-saioak egingo dira aurretik adierazitako helburua izango dutelarik.
    - Ordu eta erdiko iraupeneko saio bat.
    - Eduki pedagogikoekin aurkezpenak.
    - Parte hartzea sustatzea

- Ikasleen gurasoekin egiten diren prestakuntza-saioek hasieran adierazitako helburuak izango dituzte.
    - Ordu eta erdiko iraupeneko saio bat.
    - Eduki pedagogikoekin aurkezpenak.
    - Parte hartzea sustatzea

- Jardueren ebaluazioa: Prozesuaren eta asebetetze-mailaren ebaluazioak egingo dira.

- Deskribatutako xedeei dagokienez, Esku- harmen Komunitarioko zerbitzutik erabakitzen diren beste batzuk.

5.- GAUZATZEKO EPEA

Programa urte baterako izango da, urtero luza daitekeena, gehienez ere beste bi urtez. Zerbitzua ez da urriaren 1a baino lehen hasiko eta honen ezean, kontratua sinatu eta hurrengo egunean. Jarduera ikasturtean zehar egingo dia, hau da irailetik uztailera bitartean gauzatuko da. Datak eta saioen ordutegiak programan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzarekin doituko dira, beren proposamenak kontuan hartuz.

6.- PROGRAMAREN EDUKIA

Esku-hartzeak hainbat eduki landuko ditu etapa bakoitzeko heldutasun-bilakaeraren eta ikaslearen beharren arabera. Halaber, eboluzio-une bakoitzetik eratorritako arrisku espezifikoak kontuan hartuko dira.
Ikasturte bakoitzeko ikasleentzako edukiak honako hauek izango lirateke:

- Lehen Hezkuntza:
    1. Teknologia berrien erabilera egoki eta arduratsu baten oinarriak azaldu

alumnado.

4.- ACTIVIDADES

- Realización de talleres de formación con el alumnado.
    - Dos sesiones de una hora de duración concada grupo.
    - Las actividades se diseñarán para trabajarse en dinámicas de grupo

- Sesiones formativas con el profesorado, con el objetivo previamente señalado.
    - U n a sesión de una hora y media de duración.
    - Presentación con materiales pedagógicos.
    - Fomento de la participación.

- Sesiones formativas con padres y madres del alumnado, con el objetivo previamente señalado.
    - Una sesión de una hora y media de duración.
    - Presentación con materiales pedagógicos.
    - Fomento de la participación.

- Evaluación de las actividades: se realizará evaluación de proceso y de satisfacción.

- Aquellas otras que se determinen desde el Servicio de Intervención Comunitaria en relación con los objetivos descritos.

5.- PLAZO DE EJECUCIÓN

La duración del programa será de un año, pudiendo ser prorrogado anualmente hasta un máximo de dos años más. El servicio no se iniciará antes del 1 de octubre, o en su defecto al día siguiente de la firma del contrato. La actividad se realizará a lo largo del curso escolar, es decir, se ejecutará de septiembre a julio. Las fechas y horarios de las sesiones se ajustarán con cada centro educativo participante en el programa, teniendo en cuenta sus propuestas.

6.- CONTENIDO DEL PROGRAMA

La intervención trabajará diferentes contenidos en función de la evolución madurativa en cada etapa y las necesidades del alumnado asi como de los riesgos específicos que se deriven de cada momento evolutivo. Los contenidos para los alumnos de cada curso serían los siguientes:

- Educación Primaria:
    1. Bases del uso adecuado y reponsable de

2. Ohiko arriskuak ezagutu
3. Jokaera arriskutsuak detektatu eta egoera zailak kudeatu
4. Sare sozialak. Haiekin hasi aurretik: noiz, zertarako eta haien arrisku eta mugak.

- Bigarren Hezkuntza:
- 1 Sare sozialen eta Interneten erabilera egoki eta arduratsua: sakontze maila.
- 2. Sare sozialak: lehen erabilerak eta arriskuak
- 3. Sare Sozialak: Egoera larri edo desatseginen kudeaketa
- 4. Datu pertsonalak eta haien kontrola
- 5. Nortasun digitalaren oinarriak. Pentsamendu eta jarrera kritiko baten beharra

Familientzako saioen edukiak honako hauek izango dira: arrisku nagusiak teknologia berrien erabileran eta egoera larriak kudeatzeko eta erabilera arduratsu bat bermatzeko jarraibideak.

Irakasleentzako edukiak honako hauek izango dira: nerabeek teknologia berriei buruz egiten duten erabilerari buruzko informazioa eta behar bezala erabiltzeko jarraibideak ematea.

nuevas tecnologías

2. Conocer los riesgos habituales en su uso
3. Detectar conductas de riesgo y gestión adecuada de situaciones complicadas
4. Contenidos básicos de iniciación a las redes sociales y a los contenidos en la web

- Educación Secundaria:
1. Profundizar en el uso adecuado y responsable de las redes sociales e Internet
2. Riesgos del uso en redes sociales
3. Gestión de situaciones de riesgo en redes sociales y la web
4. Consecuencias de publicar información personal
5. Bases de la identidad digital y del pensamiento crítico

Los contenidos para la sesión con las familias serán principalmente los riesgos derivados del uso inadecuado de las TICS así como pautas y orientaciones sobre el buen uso y el manejo de situaciones complicadas.

Los contenidos para el taller con el profesorado se centrarán en la información sobre el uso que hacen los adolescentes de las nuevas tecnologías y en ofrecer pautas para un uso adecuado.

7.- METODOLOGIA

Ikasleentzako tailerrak talde-dinamiketan lan egiteko diseinatuta egongo dira. Bertan, beren esperientziak teknologia berriekin partekatu ahal izango dituzte, komunikaziorik gabeko ingurune batean. Horri esker, gerta daitezkeen jokabide arriskutsuak detektatu eta modu partekatuan jorratu ahal izango dira.

7.-METODOLOGÍA

Los talleres para alumnos estarán diseñados para trabajar en dinámicas de grupo donde podrán compartir sus experiencias con las nuevas tecnologías, en un entorno libre de comunicación. Esto permitirá detectar posibles conductas de riesgo y abordarlas de forma compartida.

8.- TITULAZIOA ETA BESTE BALDINTZA BAZUK

Titulazioa: Programa gauzatzeko arduratzen den langileak goi mailako titulazioa edukiko du Psikologian, Pedagogian edo gizarte zientzien adarreko antzerako besteren batean.

Eskarmentua: urtebeteko esperientzia, gutxienez, izango dute mendekotasunak prebenitzeko lanetan.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko **Berdintasuna**ren aldeko Irungo III. Planarekin betetzeko, gutxienez, berdintasunaren oinarrizko kontzeptuei buruzko 10 orduko prestakuntza eskatzen zaio profesional horri.

Langileak Hizkuntza Erreferentziako Europako Marko Komuneko C1-en baliokidea den **euskararen**

8.-TITULACIÓN Y OTROS REQUISITOS

Titulación. El profesional encargado de la ejecución del programa será titulado superior en Psicología, Pedagogía u otro estudio similar de la rama de Ciencias Sociales.

Experiencia. Deberá tener una experiencia profesional mínima de 1 año en prevención de adicciones.

Asimismo, en cumplimiento del IV Plan de **Igualdad** entre Mujeres y Hombres de Irun, se exige al profesional una formación mínima de 10 horas en conceptos básicos de igualdad.

El profesional deberá acreditar, al menos, un **nivel de conocimiento de euskara** equivalente al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

ezagutza maila akreditatu beharko du.

Tailerrak emateaz arduratuko den profesionalak **Sexu Delitugileen Erregistro Zentraleko egiaztagiri negatibo** bat aurkeztu beharko du, Adingabeak Juridikoki Babesteari buruzko 1/96 Legearen 13. artikulua betetzeko.

Programa gauzatzeaz arduratzen den talde profesionalaren osaeran egiten den edozein aldaketa egiteko, eskumena duen udal teknikariaren baimena beharko da, betiere titulazioaren, prestakuntza osagarriaren eta esperientziaren betekizuna errespetatuz.

La persona encargada de la impartición de los talleres deberá aportar una **certificación negativa del Registro Central de delincuentes sexuales**, en cumplimiento del Art. 13 de la Ley 1/96 de Protección Jurídica del Menor.

Cualquier alteración en el equipo profesional encargado de la implementación del programa, deberá ser autorizada por la técnica municipal competente, respetando siempre el requisito de titulación, formación complementaria y experiencia.

9.- KOORDINAZIOA

Udalak programa ikastetxeetan aurkeztuko du eta bere gain hartuko ditu bertan parte hartzeko izen-emateak. Kontratuaren arduradunak esleipendunaren jarduera ikuskatuko du eta programaren koordinatzaile arituko da, programa aurrera eramaten den edozein momentutan esleipendunari deitu ahal diola.

9.- COORDINACIÓN

La presentación del programa a los centros educativos y las inscripciones de los mismos correrán a cargo del Ayuntamiento. La persona responsable del contrato supervisará la actividad de la empresa adjudicataria y actuará como coordinadora del programa, pudiendo convocar a la empresa en cualquier momento del desarrollo del programa.

10.- AZKEN MEMORIA

Programa amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean,enpresa esleipendunak memoria elebiduna aurkeztuko du, idatziz eta euskarri informatikoan. Honako hauek jasoko ditu memoria horretan parte-hartzaile kopurua, esku-hartzearen balorazioa, ondorioak eta hobetzeko proposamenak.

10.- MEMORIA FINAL

La empresa adjudicataria presentará memoria bilingüe escrita y en soporte informático que contemple los siguientes aspectos: número de participantes, valoración de la intervención, conclusiones y propuestas de mejora en el plazo máximo de 30 días desde la fecha de finalización

11.- HIZKUNTZA OFIZIALAK

Esleipendunak baldintza hauek betez eman behar du zerbitzua:

Proiektua euskara hutsean garatuko da erabiltzaileekin, ahoz zein idatziz komunikatzeari dagokionez. Jarduera, dokumentu eta abar eta parte hartzaileekin harremanak euskaraz edo gaztelaniaz nahi duten institutu, ikastetxe edo partehartzaileek espresuki eskatu beharko dute.

Plegu honetako 4. klausulan jasotako jarduerak euskara hutsean burutuko dira ikasleentzako formakuntza tailerretan eta irakasleentzako prestakuntza-saioetan. Gurasoentzako prestakuntza-saioak euskaraz/elebietan burutuko dira, euskarari lehentasuna emanez.

Jarduerak burutzeko material eta gainerako baliabideak

11.- LENGUAS OFICIALES

El adjudicatario debe prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

El proyecto se desarrollará íntegramente en euskera en lo relativo a la comunicación, tanto verbal como escrita, con las/los usuarios. Los institutos, centros escolares o participantes que deseen las actividades, documentos etc. así como las relaciones en euskera y castellano, deberán solicitarlo expresamente.

Las actividades recogidas en la cláusula 4 de este pliego se realizarán solo en euskera en el caso de los talleres de formación con el alumnado y las sesiones formativas con el profesorado. Las sesiones formativas con padres y madres se desarrollarán en euskera/bilingüe dando prioridad al euskera.

Los materiales y demás recursos a emplear para la

(aurkezpenak eta abar) elebietan egongo dira edo euskara hutsez, jarduera hizkuntz horretan burutzen bada.

Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpaina, eslogan eta izendapen berriak (zerbitzuak, guneak…) euskaraz edo elebietan (euskara lehenetsiz) egingo dira. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.

Enpresak udal arduradunekin aritzeko jartzen dituen solaskideek horretarako ahoz zein idatzizko euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, memoriak eta abar, euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Kontratua kudeatzeko bulegotikako materiala, hardwarea eta softwarea, prestatua egon beharko da euskaraz ere funtziona dezan. Kontratatzen den zerbitzuarekin lotuta hizkuntza batean edo bestean idatz daitezkeen webgune domeinu eta izenek, mezu elektronikoek eta abarrek euskaraz egon beharko dute gutxienez.

Ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langileek euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Herritarren hizkuntza-eskubideak eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa bermatzeko, beharrezko euskara maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 da talde profesionalari atxikitako persona edo pertsonentzat. Agiri ofizial bidez egiaztatuko da.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal Ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen

realización de actividades (presentaciones etc.) deberán estar en bilingüe o solo en euskera en el caso de que se lleve a cabo en este idioma.

Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, centros, espacios…) generadas por este contrato se realizarán en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.

Los interlocutores de la empresa con los responsables municipales del contrato deben tener conocimiento de euskera suficiente para llevar a cabo esta interlocución, tanto a nivel oral como escrito, en esta lengua.

Todos los documentos no públicos o internos del contrato como facturas, memorias, etc, que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

El material de ofimática, tanto hardware como software, para la gestión del contrato deberá estar preparado para que funcione también en euskera. Los dominios y nombres de páginas web o correos electrónicos vinculados al objeto del contrato que sean susceptibles de ser escritos en una lengua u otra, como mínimo deberán estar en euskera.

Deberá asegurarse que el personal adscrito al contrato tiene el conocimiento del euskera adecuado para atender correctamente al servicio. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera o bilingüe.

Para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y el cumplimiento de la regulación de oficialidad lingüística del euskera y el castellano, el nivel de euskera requerido es el C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, en el caso de la persona o personas adscrita/s al equipo profesional. Se deberá acreditar con los títulos oficiales correspondientes.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, así como el Plan de Normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el

erabilera Normalizatzeko Plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauek kontrola eta jarraipena..

12.- BERDINTASUNA

Zerbitzuan egiten diren jarduera guztietan aintzat hartuko da genero ikuspegia, hauxe da, kontuan hartuko dira gizonen eta emakumeen behar eta interes desberdinak, berdintasuna bultzatzeko.

Era berean, hizkuntza ez sexista erabiliko da, hala zerbitzuak bere duen jardueran nola kontratua gauzatzen den bitartean zerbitzuak sortzen dituen dokumentazio eta komunikazio euskarri guztietan

control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.

12.- IGUALDAD

Todas las actividades que se realicen en el Programa deberán incorporar la perspectiva de género y tener en cuenta las diferentes necesidades e intereses de hombres y mujeres, con el fin de promover la igualdad.

Asimismo, se hará un uso no sexista del lenguaje en la actividad del servicio y documentación o soportes de comunicación y difusión en la ejecución del contrato.